

Familiantzako gutuna

Familia maiteak:

Abendualdi denporara hurbiltzen ari gara, Gabonetarako prestetan gaituen itxaronaldi eta itxaropen debora. Bide honetan lagundu gura deusuegu **familian bizitzeko** pentsautako material bategaz, alkarriketarako uneak, otoitzak eta kinu errazak sortuz, aste hauetako benetako zentzuna aurkitzen laguntzeko.

Lau astez, honako hau proposatzen deusuegu:

- **Bineta honek** Ane eta bere familia protagonista dauzan istorio bat kontetan dau, gogoeta egitera konbidatzen gaituen eguneroko egoegaz.
- Etxean alkarregaz irakurtzeko **mikrokontakizun bat**, eszenari bizia emoten diona eta aste bakotzeko gako-hitzagaz bat egiten dauena: *Itxaropena, Harrera, Poza eta Maitasuna*.
- Familian berba egiteko **galdera iradokitzaileak**.
- **Elementu ebakigarri bat** (kandela, bihotza, gozokia eta hazia) zuen Jaiotzan jartzeko, bizitakoaren sinbolo gisa.
- Familian partekatzeko **otoitz erraza**.

Ibilbide hau **Bizkaiko Caritasen Gabonetako kanpainan amaitzen da: “NaVIDAd en COMUNidad – Bizi Batera”**, komunitatea aniztasunetik eraikitzen gonbidatzen gaituena. Bertan, Caritasek bideo bat aurkeztuko dau. Bideo horretan, gure binetetan agertzen diran pertsonak, besteak beste, objektuak eramango dabez jaiotzara. Gainera, “Hutsunea jaiotzan” izeneko ipuin bat hurbilduko digute, eta geure ipuina idaztera animatuko gaituzte, erroskoi solidarioaren egunean sarituak izango diren kontakizunen lehiaketa batean parte hartzeko.




Sakoneko ideia argia da: **komunitatea aniztasunetik eta maitasun partekatutik eraikitzen da**. Keinu bakoitzak, hitz bakoitzak, etxean lantzen dugun sinbolo bakoitzak prestatzen gaitu Gabonak topaketa eta elkartasun esperientzia gisa bizitzeko.

Eskerrik asko zuen seme-alabei bide honetan laguntzeagatik. Abendualdi hau itxaropena pizteko, bihotza zabaltzeko, poza partekatzeko eta maitasuna ereiteko aukera gisa bizitzea.

Maitasunez,

Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza
eta
Caritas Bizkaia

1. Astea



“Itxaropena da jakitea inoiz ez gagozala bakarrik. Edonorentzat argia izan gaitkez”

Ane jolasean ari zan bere gelan, panpinez eta irriz inguraturik. Sukaldetik gurasoen murmurioa etorren hizketan, uraren hotsa eta kafearen usaina. Leihora begiratzean, aurreko etxean gelditu jakozan begiak: adineko andra bat, bakarrik, telebistari begira. Irudi haren isiltasunak pentsarazi eutsan.

— Ama, zergaitik ez da inor beragaz etortzen? — galdetu eban amaren alboan jesartzen zan bitartean.

Erantzuna laburra izan zan, baina nahikoa: «Bakarrik bizi da aspalditik».

Orduan, Anek irribarre egin eban sukaldea argiztatu eban ideaategaz, kandela biztu baten moduan: “Marrazki bat egingo deusatz, bakarrik ez dagoala jakin daian!”.

Ordu batzuk geroago, ustebako gutun-azal bat iritsi zan aldamenekoaren postontzira. Eta arratsalde hatan, leiho berean, Anek zeozer barria aurkitu eban: telebista atzean, bere marrazkiak irribarre egiten eutsan. Etxeak txukunagoa zirudien, eta emakumeak be bai. Anek sentidu eban, kinu txiker batez, itxaropen argi bat biztu eba nonoren bizitzan.

Alkarrizketarako galdera iradokitzaileak

1. Zergaitik uste dozu erreparau eutsala Anek adineko andrari? Zerk sentiarazi zinduzan?
2. Zer esan gura dau zuretzat “nonorentzat argia izateak”? Zelan egin daikegu hori gure eguneroko bizitzan?
3. Zergaitik emon daike itxaropena marrazkia lako kinu sinple batek? Horrelango zeozer bizi izan dozu?
4. Zerk laguntzen deusku gogoratzen inoiz ez gagozala bakarrik, baita une zailetan be?
5. Nonorentzat “itxaropen-kandela” bat biztu ahal izango bazendu, nor izango litzateke eta zer egingo zeunke pertsona horren alde?

Otoitza

Kaixo, Jesus, lagun.
Gustatzen zait argia izatea.
inguratzen nauten guztiak argiztatzeko
nire elkartasunaren argiarekin,
triste daudenak festa batean bizi daitezen.
Sentitzen laguntzea nahi dut
zure adiskidetasun-argiaren beroa nire baitan,
izan ere, horrela izan naiteke besteentzat.
Horrela, itxaropen-argia izan naiteke.
egunero inguratzen nautenentzat

2. Astea



“Ez da ondo ikusten bihotzagaz ez bada”

Parkea barrez eta osto lehorrez beteta egoan. Ane baloiaren atzetik joan korrika, gurasoek bankutik begiratzen eutsien bitartean. Bat-batean, familia bat etorri zan: begi bitxiak ebazan mutiko bat, ama hiyab eta aita kinu lotsati batez. Gaztea Anerengana hurbildu zan, baina berbak airean korapilatu ziran: neskak ez eban bere hizkuntza ulertzen eta galduta sentidu zan.

Parkearen beste ertzean, haurraren gurasoek kezkaz begiratzen eutsien alkarri, distantzia hizkuntza baino handiagoa izango zan bildurrez.

Orduan, Aneren aitak irribarre egin, baloia hartu eta bi umeengana jaurti eban. Jokoak berbek ezin ebena egin eban: batu. Algarek isiltasuna hausi eban, eta laster gurasoak be hurbildu ziran, alkarri kinu eta irribarrez agurtuz.

Anek jakin eban benetan ikusteko ez dala barbarik behar: nahikoa da bihotza. Eta parke horretan, harrera zubi ikusiezin bihurtu zan, danek alkarregaz kurutzatu ebena.

Alkarrizketarako galdera iradokitzaileak

1. Zergaitik uste dozu Ane deseroso sentidu zala hasieran? Zer aldatu zan gero?
2. Zer esan gura dau “bihotzagaz ikusteak” istorio honetan? Zelan egin daikegu hori gure bizitzan?
3. Zergaitik lortu eban jolasak haurrak batzea berbek ezin ebenean?
4. Zelan har daikeguz etxean, ikastetxean edo auzoan gu ezbardinekoak diranak?
5. Bihotz bat marraztu beharko bazendu abegi egin behar dinon batentzat, nor izango litzateke eta zer esango zeunskio?

Otoitza

Kaixo, Jesus, lagun.
bizi nahi dut, beraiei gertatzen zaienari adi
nire ondoan daude, eta beti laguntzeko prest
nigandik behar dezaketen guztian.
Lagun iezadazu, Jesus,
pertsonentzako opari bat izaten
egunero aurkitzen nautenekin.
Hauek dira eman ahal dizkizudan fruiturik onenak
Gabonak benetan prestatzeko.

3. Astea



MARKELEK KARELUAK
EKARRI DAUZ GUZTIENTZAT
BERE URTEBETETZEAGAITIK

!!!SORPRESA!!!



“Benetako poza oztopo barik partekatzen da”

Parrokia mobimentuz beteta egoan: gurasoak alkarri agur esaten, haurrak irribarrez sartzen eta katekista besoak zabalik hartzen. Ane taldean nahastu zan, amak atletik agurtzen eban bitartean.

Barruan, gela kolorezko zirkulu bat zan: kojina lurrean, kurutze bat horman eta kandela bat biztuta erdian. Haurren artean, lkerrek, gupildun aulkian, isilik aditzen eban Bibliaren irakurketa. Bat-batean katekistarengana makurtu eta irribarrea eragin eutsan zeozer xuxurlatu eutsan: gozokiak ekarri ebazan bere urtebetetzea ospatzeko.

Banan-banan, gozokiak eskuz esku pasetan joan ziran, eta poza distiratzten hasi zan denen begietan. Baina haridura gero etorri zan: Anek lkerren begiak estali ebazan besteek kandela bategaz pasteltxo bat prestetan eben bitartean.

— Sorpresa! — oihu egin eben danek batera.

lkerren irribarreak kandela biztuak baino gehiago argitu eban gela. Izan be, benetako alaitasunak ez dau oztoporik ezagutzen: partekatu egiten da, bidertu egiten da eta danak zeozer handiaren parte sentiarazten dauz.

Alkarrizketarako galdera iradokitzaileak

1. Zergaitik uste dozu partekatu gura izan ebazala lkerrek bere gozokiak? Zer erakusten deusku kinu horrek?
2. Zer esan gura dau “benetako poza oztoporik gabe partekatzen dela”? Zelan ikusten dogu istorio honetan?
3. Zelan egin daikugu ezbardin edo bakarrik sentiduten dan nonork poza sentidutea?
4. Zer gauza txikik emon deusue poz handia? Zelan emongo zeunskie poz hori beste batzuei?
5. Gozoki bat oparitu beharko bazendu pozaren sinbolo gisa, nori emongo zeunskio eta zergaitik?

Otoitza

Kaixo, Jesus.
Jesusek laguntzea nahi dut
besteen hobe beharrez kezkatzera,
guztiak ondo partekatzea eta tratatzea.
Nire bihotzean bizitzen utzi nahi zaitut.
Horregatik berekoikeria guztia kendu nahi diot
eta egon daitekeen gauza txar guztia.
Lagundu, Jesus.

4. Astea



“Partekatzen dan maitasuna komunitatearen hazia da”

Parrokiako egongela handia bizitzaz beterik egoan: lanean ari ziran eskuez betetako mahaia, kutxa pilotuak, mantaz betetako apalak, haziak eta garbiketarako objektuak.

Anek, ama eta aitagaz batera, ilusinoz beteten ebazan kutxak. Halako batean, boltsa bat jaso eta galdetu eban:

— Ama, zer da hau?

— Haziak dira. — erantzun eutsan amak. — Zugaitzak barriro hazteko eta orain erretako lurra dagoen lekuan frutua emoteko balioko dabe.

Ane pentsakor geratu zan eta irribarre egin eban:

— Bizitza emoteko, maitasuna be emon behar da. Eta kutxa bakotxean marrazki bat eta gutun bat sartzen badoguz jenteak aurki daian?

Idea su ona lez zabaldu zan, zeinaren bihotzak bizten diran: laster, boluntario guztiek kutxak itxi ebezan arkatzak hartu eta mezuak idazteko. Itxaropen marrazkiak, maitasun berbak.


Ordu batzuk geroago, kamioia beteta egoan. Anek bihotz bat marraztu eban azken kaxan, kargau aurretik. Izan be, partekatzen dan maitasuna komunitatearen hazia da: ernemina, hazi eta bihotzak batzen dauz, gertu, baita milaka kilometrora be.

Alkarrizketarako galdera iradokitzaileak


1. Zergaitik uste dozu gehitu gura izan ebazala marrazkiak eta gutunak kutxetan? Zer aldatzen da kinu horregaz?
2. Zer esan gura dau “partekatzen den maitasuna komunitatearen hazia dela”? Zelan ikusten dogu istorio honetan?
3. Zelan erein daikegu maitasuna gure eguneroko bizitzan, etxean, ikastetxean edo auzoan?
4. Zergaitik maitasuna ez da berbetan bakarrik geratzen, baizik eta ekintza konkretu bihurtzen?
5. Itxaropena behar dauen nonorentzat hazia marraztu beharko bazendu, zer mezu jarriko zeunkio?

Otoitza


Kaixo, Jesus, lagun.
lagundu aste honetako egun guztietan
ekintza onak egitera
aurkitzen ditudan pertsonei.
Lagundu gaitzagitik barkamena eskatzen
beste batzuei egin diezaiekedala.
nire ekintza onekin besteak iragartzen ari naiz
zu jada nirekin zaudela, nire bihotzean,
nire bitartez oparituz,
Zure poza eta zoriona. Eskerrik asko, Jesus.




Itxaropena da jakitea inoiz ez gagozala
bakarrik. Edonorentzat argia izan
gaitekez



Ez da ondo ikusten bihotzagaz ez bada



Benetako poza oztopo barik partekatzen
da



Partekatzen dan maitasuna
komunidadearen hazia da